

04 Ebaluazioa

Ebaluazioa lagungarri edo oztopo izan daiteke hezkuntza berritzeko. Teknologia digitalak irakaskuntzan eta ikaskuntzan txertatzean, kontuan izan behar dugu teknologia digitalek nola hobetu dezaketen existitzen diren ebaluazio-estrategiak. Era berean, kontuan izan behar dugu nola erabil daitezkeen, ebaluazio-planteamendu berritzaileak sortu edo sustatzeko. Gaitasun digitala duten irakasleek gai izan behar dute teknologia digitalak ebaluazioan erabiltzeko, bi helburu horiek gogoan izanik.

Halaber, teknologia digitalak hezkuntzan ebaluaziorako, ikaskuntzarako, administrazioarako edo beste helburu batzuetarako erabiltzeak berekin dakar datu ugari eskura izatea ikasle bakoitzaren ikasteko jokabidearen gainean. Datu horiek aztertu eta interpretatzea eta erabakiak hartzeko erabiltzea gero eta garrantzitsuagoa bilakatzen ari da, ikaslearen jokabideari buruzko ohiko frogan analisia osagarri izanik.

Era berean, teknologia digitalak lagungarri izan daitezke ikasleen aurrerapausoak zuzenean ikuskatzeko, feedbacka errazteko eta irakasleek beren irakasteko estrategiak ebaluatu eta egokitzeko.

Ebaluazioa



Ebaluazio-estrategiak

Tresna digitalak erabiltzea ebaluazio formatibo eta batutzaileetarako. Ebaluazio-formatuen eta -metodologiaren dibertsitatea eta egokitasuna hobetzea.



Frogak aztertzea

Ikasleen jarduerari, errendimenduari eta aurrerapausoei buruzko frogak digitalak sortu, aukeratu, kritikoki aztertu eta interpretatzea, irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako informazio-iturri gisa.



Feedbacka eta plangintza

Tresna digitalak erabiltzea ikasleei feedback puntuala eta espezifikoa emateko. Irakaskuntza-estrategiak egokitzea eta laguntza espezifikoa ematea, erabilitako tresna digitalen bidez sortutako frogetan oinarrituta. Ikasle eta gurasoei tresna digitalen bidez eskuratutako frogak ulertzen laguntzea, eta froga horiek erabakiak hartzeko erabiltzea.